

erren ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



EUSKARAZ ARGITARATUTAKO LIBURUAK 2011-2016

ARGITALPEN ZERBITZUA

www.ehu.eus



eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Euskara Zerbitzuaren laguntzaz argitaratutako lanak

Giza Zientziak

FILOLOGIA	4
FILOSOFIA	8
LITERATURA	9
HISTORIA	10
ARTEA	14

Gizarte Zientziak

ZUZENBIDEA	16
EKONOMIA	17
PEDAGOGIA	18
PSIKOLOGIA	21
SOZIOLOGIA	21
KOMUNIKAZIO ZIENTZIAK	24

Bizitzaren Zientziak

BIOLOGIA	28
MEDIKUNTZA	30

Zientzia Zehatzak eta Materiarenak

GEOLOGIA	32
FISIKA ETA KIMIKA	33

Zientzia eta Teknologia

INGENIARITZA	34
ARKITEKTURA	38
INFORMATIKA	38

LIBURU BILDUMAK	39
-----------------	----

Giza Zientziak · Gizarte Zientziak · Bizitzaren Zientziak · Zientzia Zehatzak eta Materiarenak · Zientzia eta Teknologia

FILOLOGIA

Urbe Kosta, Txorierri eta Mungialdeko euskara



Urbe Kosta, Txorierri eta Mungialdeko euskara da saio honen aztergaia. 25 herri dira guztira eta hizkuntzaren aldetik badu interesa: Euskal Herriko ipar-mendebaleko ertzean dago eta, kokagune hori dela eta, hainbat ezaugarri zahar gorde eta, aldi berean, gauza berriak sortu dira bertan. Batez ere Urbe Kosta eskualdea agertzen da berezi.

Hiru atal nagusi ditu saioak. Alderdi horretako euskararen gramatika txiki bat aurkezten da lehenean. Hiztegi zabalak osatzen du bigarrena: 572 sarrera eta 63 azpisarrera daude guztira. Hirugarren atalean hizkera horren egitura dialektala azaltzen da. Gainera, 41 mapa agertzen dira, liburuaren osagarri eta aberasgarri.

Egileak: Koldo Zuazo Zelaieta, Urtzi Goiti Ugarte

Urtea: 2016


ISBN: 978-84-9082-412-2

Or.: 190

Formatua: 17 x 24

Prezioa: **15,00 €**

Hire bordatxoan. Txipi Ormaetxea omenduz



Urte luzez irakasle, irakaskide, lankide, lagun izanik, eta urte luzez Euskal Herriko Unibertsitateko gela-bulegoetan letraz eta tintaz aritu ondoren, ez zen azti-dohain berezirik behar Txipi Ormaetxeari paper idatzizko azala daraman agurtze-oparia egokituko zitzaiola igartzeko. Haren erretiroaren karrietara etorri nahi izan du liburu honek, lar belutu gabe. Eta etorri ere, urteotan Txipik eskaini dituen profesionaltasun eta adiskidetasunaren sakapean aterpetu guran etorri da.

Egileak: Gotzon Aurrekoetxea Olabarri, Jesus Mari Makazaga Eizagirre, Patxi Salaberri Muñoa (arg.)

ISBN: 978-84-9082-305-7

Formatua: 17 x 24

Urtea: 2016

Or.: 322

Prezioa: **15,00 €**

Eridenen du zerzaz kontenta: Saillkideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari (1947-2008)



Liburu hau saillkideok UPV/EHUko Euskal Filologiako katedradun zen Henrike Knörr Borrás (1947-2008) irakasleari egin diogun omenaldi xumea da. Liburuko hogeita hamabost kapituluetan zehar egun garatzen ari garen ikerlanaren aleak aurki daitezke, honako alor hauetakoak: filologia, dialektologia, literatura, onomastika, hizkuntzalaritza sinkroniko eta diakronikoa, hizkuntzalaritza aplikatua eta konputazionala, eta psikolinguistika.

Egileak: María José Ezeizabarrena Segurola, Ricardo Gómez López (arg.)

ISBN: 978-84-9082-092-6

Formatua: 17 x 24

Urtea: 2015

Or.: 662

Prezioa: **32,00 €**

Ibon Sarasola, gorazarre. Homenatge, homenaje



Handia da, zentzurik onean gainera, Ibon Sarasolaren itzal akademikoa: azkeneko hamarkadetan, alde batera edo bestera, euskararen ikerketaz arduratu garen guztiok jo behar izan dugu EHUko ikertzaileak argitaratu dituen lanak behin eta berriz ikustera eta kontsultatzena. Ongi dakigunez, erraldoia da Ibonek bere bizitzan zehar egin duen lana. Erraldoia, berezia eta ordu askoren emaitza.

Egileak: Beatriz Fernández Fernández, Pello Salaberri (arg.)

ISBN: 978-84-9082-097-1


Formatua: 17 x 24

Urtea: 2015

Or.: 698

Prezioa: **30,00 €**

Esaldiaren antolaera. Funtzio informatiboak gako




Liburu hau ez da sintaxi-liburu bat, nahiz eta, zentzu zabalean, joskeraz diharduela esan litekean. Sintaxia arau sorta baten bitartez perpaus gramatikalak sortzeko mekanismo bat da. Hiztunak arauok jakin (edo ikasi) beharra dauka. Sintaxi-arauek, ordea, erabaki gabe uzten dute nola antolatu perpausak egoki adierazteko kasuan-kasuan eman nahi den informazioa. Sintaxia, zentzu horretan, ez da interesgarria testugintzari begira: men egin, eta kito.

Beste nonbait bilatu beharko dugu, beraz, askatasun-tarte handiagoa eskainiko digun zerbait. Denok baitakigu badela askatasun ez nolana horik, eta are sormen puskarik, testu bat ontzeko orduan. Non da, ordea, horren gako?

Egilea:	Juan Garzia Garmendia	Urtea:	2015
ISBN:	978-84-9082-086-5	Or.:	168
Formatua:	17 x 24	Prezioa:	17,00 €

Birformulazioa eta birformulatzaileak euskaraz



Diskurtso-markatzaileez dihardugu liburu honetan. Zehatzago esanda, diskurtso-markatzaile jakin batzuek: birformulatzaileez. Diskurtsoa berrinterpretatzeko prozedura bat da birformulazioa: haren bidez esataria aurreko diskurtso-atalera itzultzen da, hura berrinterpretatzeko edo bestelako ikuspegi batez aurkezteko. Birformulazioa, beraz, diskurtsoan lehenago adierazitakoa bestelako hitzez berradieraztea edo birformulatzea da.

Egilea:	Xabier Alberdi Larizgoitia (koord.)
ISBN:	978-84-9082-060-5
Formatua:	14,5 x 22,5
Urtea:	2014
Or.:	692
Prezioa:	20,00 €

Filologia eta Hizkuntzalaritza Saila, 19

Euskal dialektologia: lehena eta oraina



Aurkibidea: Irantzu Epelde: Hitzaurrea. Beñat Oyharçabal, Jasone Salaberria eta Irantzu Epelde: Norantz datubasea: aurkezpena eta aditz komuntzadurako datua. Beatriz Fernández: Goi- eta behe-datiboak eta Datibo-Komuntzaduraren Murriztapena: Ipar-ekialdeko hizkerak eta euskara estandarra. Orreaga Ibarra: Egungo gazte mintzairaren hainbat ezaugarri. Iñaki Camino: Ekialdeko euskararen iraganaz.

Egilea: Irantzu Epelde
Zendoia (arg.)

ISBN: 978-84-9860-495-5

Formatua: 17 x 24


Urtea: 2014

Or.: 244

Prezioa: **16,00 €**

Julio Urkixo Euskal Filologi
Mintegiaren Urtekariaren
Gehigarriak, 69

Mailopeko euskara



Aralarko Mailoen azpian daude Betelu, Errazkin, Lezaeta eta Araitz bailarako sei herriak: Atallu, Arribe, Azkarate, Uztegi, Gaintza eta Intza. Nafarroako mendebalean, Gipuzkoako mugan, Tolosatik gertu daude. Alderdi horretako euskararen gramatika eta hiztegia bildu dira liburu honetan. Bereziki nabarmentzekoa da osatu den hiztegi zabala: 2.656 sarrera, 148 azpisarrera, 310 esapide, 171 esaera zahar eta 6 hitz-joko aurkezten dira.

Egilea: Koldo Zuazo Zelaieta

ISBN: 978-84-9860-872-4

Formatua: 17 x 24

Urtea: 2013

Or.: 368

Prezioa: **18,00 €**

Idazleei galdezka



Hausnargaiaren ezaugarriek hala eskatuta, aspaldidanik nabarmenarazia zuen gure Literatur Mintegi honek idazleekin harreman zuzenean hasteko premia, baina arrazoizkoegiak ez ziruditen arrazoiak zirela eta, urte urte atzeratuz joan da ekimena. Oraingoan, halere, aldeko izar eta astroen konjuntzioa gertatu bide eta ortzian eta aukera baliatu ahal izan dugu behialako asmo premiatsuari ekiteko.

Egilea: Patxi Salaberri
Muñoz (arg.)

ISBN: 978-84-9860-706-2

Formatua: 27 x 19

Urtea: 2012

Or.: 122

Prezioa: **14,00 €**


Filosofiarako sarrera bat



Lan honek filosofiarako sarrera bat eskaini nahi du, eta gaika dago antolaturik, filosofiako esparru eta arazo asko zeharkatuz: balioak, artea, politika, gogamena, pentsamendua, zientzia, hizkuntza, ezagutza, etika... Testua unibertsitateko ikasleei begira dago prestatuta, baina pertsona gazteagoentzat eta helduagoentzat egokia izan daiteke, baita unibertsitatetik kanpoko jendearentzat ere. Kontua da auzi filosofikoak interesgarritzat hartzea.

Egilea:	Agustín Arrieta Urtizberea
ISBN:	978-84-9082-285-2
Formatua:	17 x 24
Urtea:	2016
Or.:	262
Prezioa:	16,00 €

Oi Europa!



Zer ote da Europa delako hori? Zer da europar izatea? Zerk egiten gaitu europar? Zertan datza europar berezitasuna? Europak ez dio utzi behin ere bere egiazko izaeraz eta helburuez galdetzeari. Europaner Ideia nekez uler daiteke haren "jatorrizko gertakaria" den filosofiari erreferentzia egin gabe. Europa, batez ere, gertaera europarrak berezkoenaren sorburua da: filosofiarena.

Egilea:	Jon Sudupe Martija
ISBN:	978-84-9860-728-4
Formatua:	13,5 x 21,5
Urtea:	2012
Or.:	402
Prezioa:	12,00 €

Euskadi Literatura Saria 2013 - Euskarazko saiakera

Oinarrizko filosofia



Oinarrizko filosofia idazlanak gozo eta erraz sarrarazten du irakurlea filosofiaren munduan. Kapitulu bakoitzak filosofiaren arlo giltzarri bat jorratzen du, oinarrizko ideiak eta gaiak azalduz eta arakatuz: Frogatu al daiteke Jainkorik baden? Nola ezagutzen ditugu zuzen dena eta oker dena? Nola definitu behar genuke adierazpen-askatasuna? Ba al dakizu nola dabilen zientzia? Zure gogamena eta gorputza bat al dira? Defini al dezakezu zer den artea?

Egilea:	Nigel Warburton
ISBN:	978-84-9860-543-3
Formatua:	17 x 24
Urtea:	2011
Or.:	176
Prezioa:	16,00 €

Gogoz, hitzez eta egitez. Pello Huiziri eskainitako lanak




Hitzaurrea. Bitoriano Gandiagaren espiritualitate eta inspirazio frantziskotarrak: Ttirrittaren parabola. Arrazoibide ez-monotonoa eta logika. Gizabanakoaren garapena taldean. Historia ez da ikusten, asmatu egiten da. Harrotasuna, aurrera egiten laguntzen digun adiskidea. Oihartzuna eta antzezpena ironian.

Egileak: Kepa Korta Carrión, Jesús M^a Larrazabal Antia (arg.)
 ISBN: 978-84-9860-495-5
 Formatua: 17 x 24
 Urtea: 2011
 Or.: 416
 Prezioa: **15,00 €**

LITERATURA

Leizarragaren idazlanetan barrena



Hiru argitalpenen hegalean bildurik kaleratu zituen Joanes Leizarragak 1571n Kalbinen erlijioaren sei obra funtsezko, idazkeraren itsasoan murgiltzen doi hasia zen euskarari idazmolde erabat betegina eskainiz. Albreteko Joana erreginaren agindupeko nafar erresumako euskaldunen artean sinesmen berria hedatzeko eta sendotzeko baliabide gisa moldatu ziren guztiak, idazlan bakoitza eduki eta pisu ideologiko desberdinekoa bazen ere.

Egilea: Patxi Salaberri Muñoa
 ISBN: 978-84-9082-025-4
 Formatua: 17 x 24
 Urtea: 2014
 Or.: 190
 Prezioa: **16,00 €**


Literaturaren kritikaren historia



Literaturari buruzko gogoetak ardaztu duen bilakaera-hariari jarraitzea du liburu honek helburu nagusia. Metodologia-estrategia interesgarri bat du gidari: literatura-azterketen eremuko testurik garrantzizkoenetako batzuen analisi zehatz-zorrotza eskaintzea -batzuen, noski: hautatu beharra baitago nahitaez-.

Egilea: David Viñas Piquer
 ISBN: 978-84-9860-574-7
 Formatua: 17 x 24
 Urtea: 2011
 Or.: 646
 Prezioa: **42,00 €**

Basker. 1960ko hamarkadako euskal kulturari buruzko suediar dokumentalak



1963ko urtarrilean eta otsailean, Dan Grenholm eta Lennart Olson erreportariak Euskal Herria bisitatu zuten hainbat astetan zehar, eta euskal kulturari eta folkloreaki buruzko bi film labur dokumental etnografikotarako filmazioa egin zuten. **Basker** eta **Bonde i Baskerland** filmak Sveriges Radio TV suediar telebista publikoan eman ziren urte bereko udan. Ezustean topatutako ikus-entzunezko dokumentu bitxi eta guretzat argitaragabe horiek aurkezten ditu monografia honek, eta horien inguruko azterketa orokorra eskaintzen du. Eszena nagusien deskribapen zehatzak eta identifikazioak osatzen dute lanaren oinarria, eta egileen biografia txundigarriak nahiz Euskal Herrira egin zuten espedizioaren aurrekariak eta xehetasunak aztertzen dira ondoren.

Egilea: Argibel Euba Ugarte

Urtea: 2016

ISBN: 978-84-9082-470-2

Or.: 264 €

Formatua: 17 x 24

Prezioa: **15,00 €**

Oroimenaren lekuak eta lekuoak.

Gerra Zibilaren errepresentazio artistikoak vs. kontaera historiko-politikoak



Memoriari eta lekukotzei buruzko ikasketek nazioartean sortu duten interesa kontuan izanik, Gerra Zibilaren harira Euskal Herrian zabaldu diren diskurtso mota ezberdinak aurrez aurre jartzea da monografiko honen asmoa. Hainbat diziplina biltzen dituen lan esparru zabala da oroimenarena. Horregatik, elkarren osagarri izan daitezke politikaren eta historiografiaren arloko diskurtsoak eta adierazpide kultural ezberdinetako errepresentazio artistikoak.

Egileak: Izaro Arroita Azkarate, Lourdes Otaegi Imaz (arg.)

ISBN: 978-84-9082-290-6

Formatua: 17 x 24


Urtea: 2016

Or.: 274

Prezioa: **24,00 €**

Mundu modernoaren sorrera

Kontakizun global eta ekologiko bat. XV. mendetik XXI. mendera arte



Liburu erakargarri eta argi idatzitako honek mundu modernoaren sorrerari buruzko kontakizun bat dakarkigu, 1400etik gaur arteko tartea hartzen duena. Asiari, Afrikari eta Mundu Berriari buruzko ikerkuntzak ekarri duen jakintza berria erabiliz, Robert Marks-ek kontakizun bat eraikitzen du, zeinean munduko parte horiek jokatzen baitituzte rol nagusiak.

Egilea:	Robert B. Marks
ISBN:	978-84-9082-167-1
Formatua:	15 x 21
Urtea:	2015
Or.:	240
Prezioa:	16,00 €

Erromatar Goi Inperioa Mendebaldean.

Augustorengandik Severotarrengana. K.a. 31 - K.o. 235



Liburu honetan aipatzen diren espazioak askotarikoak dira. Erroma eta Italia lurralde periferikoekin uztarturik ageri dira ezinbestean, haietako batzuk inperioaren erdigunetik guztiz urrun bazeuden ere. Dokumentazioa oparo-oparoa da, baina sakabanaturik dago, eta datuek ez dira beti berdin, eremu geografikoa edo aztergaia aldatu ahala. Horrek guztiak lan honetan ikuspegi geografiko bat erabiltzea galarazten zuen, gure iritiz.

Egilea:	Patrick Le Roux
ISBN:	978-84-9082-151-0
Formatua:	15 x 21
Urtea:	2015
Or.:	404
Prezioa:	20,00 €


Errepublikanismoa Gipuzkoan (1868-1923)



Liburu hau lau urte luzez egindako lanaren lehendabiziko emaitza da. Bere garaian, helburu zehatz bati jarraikiz eman zitzaion hasiera ibiliari: Gipuzkoan nahiz Euskal Herri mailan sortu den hutsune historiografikoa betetzea. Estatuan kultura politiko errepublikanoari buruz gero eta ikerketa gehiago burutzen ari badira ere, hemen oraindik asko dago egiteko.

Egilea:	Unai Belaustegi Bedialauneta
ISBN:	978-84-9082-085-8
Formatua:	16 x 22,5
Urtea:	2015
Or.:	396
Prezioa:	20,00 €
Historia Garaikidea Saila, 47	

Gerra Zibila Berriatuan eta Lekeitioko frontean.
Berriatua Berrezarkuntzan, II. Errepublikan eta Gerra Zibilean



Berriatuan, gudako lehen lerroan geratu ziren beste herri batzuetan baino zibil gutxiago hil ziren: sei bonbardaketan eta tiroen ondorioz, eta kleroko bi kide fusilatuta (abade bat Larruskainan eta moja bat Bartzelonan). Gainera, guk dakigula, herriko mutilik ez zen hil borrokatzen, eta beste fronte batzuetan baino soldadu gutxiago hil zirela pentsa daiteke.

Egilea:	Patxi Juaristi Larrinaga
ISBN:	978-84-9082-066-7
Formatua:	17 x 24
Urtea:	2014
Or.:	240
Prezioa:	18,00 €

Emakumeak, hitza eta bizitza




Liburu honek, jarduera akademiko baten emaitza izateaz gainera, aitortzeko eta omentzeko ekimen bat izan nahi du. Oso egoera zailetan, gizartearen eta herrialdearen alde onena eman zuten emakumeei eginiko aitortpena eta omenaldia, hain zuzen ere.

Azken hamarkada hauetan emakumeak lortzen ari diren aurrerapenez mintzatzean, eta egiteko dagoen guztia kontuan hartuta, erraza da aurrera begiratzea eta atzean utzitakoa ahaztea. Historiak, ordea, ikasbide ugari ditu guri emateko, eta, historia luze horretan, baliagarria zaigu emakume askok izandako jokabidea, gure iragana ezagutzeko ez ezik, gure etorkizunari begira jartzeko ere.

Egileak:	Begoña Bilbao Bilbao, Gurutze Ezkurdia Arteaga, Karmele Pérez Urraza, Josu Chueca Intxusta (koord.)	Urtea:	2012
ISBN:	978-84-9860-737-6	Or.:	284
Formatua:	17 x 24	Prezioa:	20,00 €

Amets baten oinordeko gara - Heredamos un sueño. Euskal Unibertsitatea - Universidad Vasca. 1936



1866tik aurrera euskal erakundeek eta gizarteak unibertsitatea eskatu zieten behin eta berriz Espainiako gobernuei, baina aldarrikapen hori ez zen gauzatu 1936ko azarora arte, euskal autonomiarekin batera. Medikuntza Fakultatea baino ez zen eratu eta Bilbo erortzearekin batera itxi zituen bere ateak. Auzi horrek ondo erakusten du.

Egilea: Mikel Aizpuru
Murua

ISBN: 978-84-9860-752-9


Formatua: 17 x 24 cm

Urtea: 2012

Or.: 280

Prezioa: **20,00 €**

Markinako frontea. Markinako eta Xemeingo egoera politikoa eta soziala Bigarren Errepublikan eta Gerra Zibilean (1931-1939)



1936ko irailetik 1937ko apirilera, guda larrea geldirik egon zen Markina-Xemeingo lurretan, eta herritarrek eraso bortitz ugari jasan behar izan zituzten. Gainera, behin erreketekak herrian sartu eta gero, errepresio basatia hasi zuten abertzaleen eta ezkertiarren aurka. Zaharrenen artean, Gerra Zibileko oroitza penak oso indartsuak dira.

Egilea: Patxi Juaristi
Larrinaga

ISBN: 978-84-9860-583-9

Formatua: 17 x 24

Urtea: 2011

Or.: 348

Prezioa: **18,00 €**

Artetari buruzko oinarrizko kontzeptuak



Liburu hau vademecum gisa pentsatuta dago, erraz kontsultatzekoa. Informazio zabal samarra, laburtua eta eguneratua eskaintzen du gaiaren alderdi nagusiei buruz. Sarrerak alfabetikoki antolatuta daude, eta gai hauei buruzko kontzeptu eta termino nagusiak aipatzen dira: arte plastikoak, arkitektura, dekorazio-arteak eta diseinua, ikuspuntu teoriko, historiko, formal eta deskriptibo batetik begiraturata.

Egileak: José M^a Faerna
García-Bermejo,
Adolfo Gómez
Cedillo

ISBN: 978-84-9082-243-2

Formatua: 15 x 21

Urtea: 2015

Or.: 234

Prezioa: **15,00 €**

Zientzia Astea. Alfabetatze zientifikoa - Alfabetización científica



Jakintza zientifikoa eguneroko errealitatea ulertzeko eta harekin eraginkortasunez eragintzeko jarduteko gure gizarte bilakaeran nagusi izan behar duten oinarrizko gaitasun batzuekin lotua dago. Horretarako, diseinu grafikoaren bidez, nahasmenetik atera eta jakintza berria sortzen jarraitzeko, begiak ireki eta gure begirada berreraikitzeke beharraz ohartarazten lagundu nahi dugu.

Egileak: Eduardo Herrera
Fernández, Leire
Fernández Iñurritegi,
María Pérez Mena

ISBN: 978-84-9082-042-1

Formatua: 15 x 21

Urtea: 2014

Or.: 224

Prezioa: **16,00 €**

EHU Tipografia korporatiboa - EHU Tipografía corporativa



EHU tipografiaren proiektua aurkezten dugu hemen, gure unibertsitateak helarazi nahi dituen nortasun bereziaren printzipioetan oinarrituta, publikoki hauteman, aurkeztu eta bereziak izan daitezzen. Unibertsitateak duen eguneroko eginkizuneko behar guztietara egokitzea bilatzen duen tipografia da eta UPV/EHUn izaera elebiduna kontuan hartzen duena, letra tipografiko bereko bi bertsio estilistiko baititu.

Egileak: Eduardo Herrera
Fernández, Daniel
Rodríguez Valero,
Leire Fernández
Iñurritegi, María
Pérez Mena

ISBN: 978-84-9860-817-5

Formatua: 18 x 23

Urtea: 2013

Or.: 80

Prezioa: **16,00 €**

Prozesu sortzailea kartelen diseinu grafikoan Un proceso creativo en el diseño gráfico de carteles



Diseinu grafikoari lanbide-izaera aitortuta, eta ikuspuntu didaktiko batetik, diziplina hau "tailerraren" zentzu itxian planteatzen da, ekintzan egituratuta. Proiektu erreale baten gainean "eginez ikasi" ideian oinarritutako ikuspegi honetatik, eta berariazko proposamen metodologikoarekin, UPV/EHUko Udako Ikastaroetako Diseinu Grafikoko Tailerrean sortutako hamar kartelen aurretiko gogoetak.

Egileak: Eduardo Herrera Fernández, Leire Fernández Iñurritegi

ISBN: 978-84-9860-844-1

Formatua: 17 x 24

Urtea: 2013

Or.: 286

Prezioa: **20,00 €**

Raemaekerseren marrazkiak: Britaniar propaganda Espainian eta Euskal Herrian Lehen Mundu Gerran



1916an *Raemaekers Olandi'ar margolari antzetsu erostiaren Marku-ostoa*k izenburua zuen katalogo-liburuxka argitaratu zen Londresen. 1916ko arte-katalogo bat euskaraz topatzea harrigarria bazen ere, harritzeko arrazoi gehiago daude liburuxkaren argitalpen-hiria Londres dela konturatzen garenean. Zein da arrazoia euskarazko katalogoa Londresen argitaratzeko?

Egileak: Ismael Manterola Ispizua

ISBN: 978-84-9860-753-6


Formatua: 17 x 24

Urtea: 2012

Or.: 398

Prezioa: **24,00 €**

Arte zinematografikoa



Arte zinematografikoak berezko hizkuntza eta estetika ditu. Bordwellen eta Thompsonen *Film Art* liburua zinemagintzari buruzko sarrera-libururik salduena da, eta oso errespetatua, gainera, adituen artean. Teknika zinematografikoak nabarmenduz, ikasleei tresna analitiko egokiak ematen saiatu dira irakasleak, tresna horiei esker ikasleek hobeto uler ditzaten genero guztietako filmak.

Egileak: Kristin Thompson, David Bordwell

ISBN: 978-84-9860-544-0

Formatua: 21,5 x 27,5

Urtea: 2011

Or.: 538

Prezioa: **45,00 €**

Giza Zientziak · Gizarte Zientziak · Bizitzaren Zientziak · Zientzia Zehatzak eta Materiarenak · Zientzia eta Teknologia

ZUZENBIDEA

Euskal Oinordetza Zuzenbideari buruzko azterketa Araudi berri bat sortzeko oinarriak

Euskal Oinordetza Zuzenbideari buruzko azterketa

Araudi berri bat sortzeko oinarriak

Clara I. Asua González
Gorka Galicia Aizpurua
Jacinto Gil Rodríguez
José Javier Hualde Sánchez
Leire Imaz Zubiaur



Herri ororen nortasuna zehazteko eta haren egitura eratzeko, elementu ezinbestekoa da Zuzenbide Zibila, hizkuntzaren eta kulturaren parean jartzen baita. Horregatik jotzen da gaur egun nahitaezkoa dela Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle guztientzat Zuzenbide Zibil bateratu bat osatzea; Gernikako Estatutuak bere gain hartutako eskumena baliatuz, azken batean Zuzenbide pribatua herri-nortasunaren eta euskal lurraldeen arteko kohesioaren elementu gisa erabiltzeko. Bide horretan, Euskal Zuzenbide Zibila zuhurtziaz eta lasaitasunez garatzeko, zatika ekitea da modurik egokiena, eta hortik dator, hasteko, oinordetzari buruzko estatutua lantzeko proposamena.

Egileak: Clara I. Asua González, Gorka Galicia Aizpurua, Jacinto Gil Rodríguez, José Javier Hualde Sánchez, Leire Imaz Zubiaur

ISBN: 978-84-9860-954-7

Formatua: 13,5 x 21,5

Urtea: 2014

Or.: 116

Prezioa: **7,00 €**

Zuzendaritza estrategikoa. Teoria eta praktika



Liburu honek Zuzendaritza Estrategikoaren ikuspegi gaurkotu eta integrala eskaintzen du, eta curriculum diseinu berrien arabera dago pentsatua. Izan ere, curriculum horiek irakaskuntza eta ikaskuntza-prozesuetan lanbiderako gaitasunak garatzea dute helburu.

Egileak: Eneka Albizu
Gallastegi, Jon
Landeta Rodríguez
(koord.)

ISBN: 978-84-9082-055-1

Formatua: 17 x 24

Urtea: 2014

Or.: 224

Prezioa: **22,00 €**

Egungo estrategia-analisia



Etorkizuna iragartzeko zailtasunak, nahasmenak eta lehia gogorrak nagusi dira enpresa-ingurune globalean. Estrategia, bestalde, gero eta garrantzitsuagoa da enprezentzat, aurrez antzeman ezin zaion enpresa-ingurune erronkatz betetako batean bizi baitira. Horrenbestez, ezinbestekoa zaie arreta irmoa jartzea balioa sortzeko oinarrietan, biziraungo badute eta haziko badira.

Egilea: Robert M. Grant

ISBN: 978-84-9860-861-8


Formatua: 19 x 25

Urtea: 2013

Or.: 518

Prezioa: **42,00 €**

Munduaren historia ekonomikoa. X-XX. mendeak



Historia ekonomikoa arloko ikerkuntzak halako indarra hartu du azken hamarraldiotan, non zaila baita azken ikerketa eta ikuspegi guztien berri izatea. Horrez gainera, baldin eta nahi bada mila urte baino gehiagoko aldia aztertu —Erdi Arotik gaur egun arte— eta Europaren esparru estua gainditu —orain arteko lanik gehienak eremu horretara mugatu baitira—, eginkizuna pertsona bakar baten helmenetik at dago ia.

Egileak: Francisco Comín
Comín, Mauro
Hernández Benitez,
Enrique Llopis
Agelán (arg.)

ISBN: 978-84-9860-866-3

Formatua: 17 x 24

Urtea: 2013

Or.: 484

Prezioa: **24,00 €**


Heziketa fisiko moderno baterako perspektibak



Pierre Parlebas, bi aldiz Honoris Causa Doktorea eta Frantziako Ohorezko Legioko zalduna, Frantziako Heziketa Fisikoaren erreferentziatzako azken autore da. Lan txiki hau bere hitzaldi bateko transkripzioetik abiatzen da, Andaluziako Juntak 1996an argitaratutakoa eta **Perspectivas de una educación física moderna** izendatua. Onerako edo txarrerako lan interesagarria eta gaur egungoa izaten jarraitzen du.

Egilea:	Pierre Parlebas
ISBN:	978-84-9082-458-0
Formatua:	17 x 24
Urtea:	2016
Or.:	76
Prezioa:	7,00 €

Hezkuntza-ebaluazioa



Hezkuntza-ebaluazioa ezinbesteko tresna da gaur egun hezkuntza-prozesuen kalitatea bermatzeko, bai eta prozesu horiek etengabe hobetzen jarraitzeko ere. Testuinguru horretan, azken hamarkadetan aldaketak gertatu dira hezkuntza-ebaluazioan, eta bilakatu joan da, gaur egungo egoerara iritsi arte. Hezkuntza-ebaluazioa izenburuko liburu honek hezkuntza-ebaluazioaren gaur egungo gakoak eskaintzen dizkie hezkuntzako profesionali, bai eta hezkuntzako profesional izan nahi dutenei ere, hots, irakasletza, pedagogia, gizarte-heziketa, psikopedagogia ikasten ari direnei. Horretarako, liburuak parte teoriko bat du, non hezkuntza-ebaluazioaren oinarri kontzeptualak berrikusten baitira, aplikazio-eremu garrantzitsuenak eta hori gauzatzeko metodologia.

Egileak:	José Francisco Lukas Mujika, Karlos Santiago Etxeberria	Urtea:	2016
ISBN:	978-84-9082-418-4	Or.:	330
Formatua:	17 x 24 cm	Prezioa:	18,00 €

Eskola kulturaniztunetan irakastea eta ikastea



Liburu honek eskolek eta irakasleek izan ditzaketen ikuspegi eta estrategien adibideak eman nahi ditu, zertarako eta eskola eta ikasgela kulturaniztunetako ikasle guztien beharrei erantzuten dieten hezkuntza-esperientziak eskaintzeko. Ideia asko bereziki lagungarri gertatuko zaizkie etorkin berriak hartzen dituzten eremuetako hezitzaileei. Liburua eskola eta eskola-barruti eleaniztun, kulturaniztun eta arrazaniztunetako irakasle, zuzendari eta curriculum-aholkulari guztientzat idatzia da.

Egilea:	Elizabeth Coelho
ISBN:	978-84-9082-447-4
Formatua:	17 x 24 cm
Urtea:	2016
Or.:	304
Prezioa:	18,00 €

Kubik: antzezlan bat baino gehiago...

Haur Hezkuntzarako proposamen artistiko-pedagogiko bat



Lau ardatzen inguruan egindako liburua da honako hau: Haur Hezkuntza, Antzerkia, Ikerketa eta Irakasle(gai)en Prestakuntza. Loris Malaguzzi pedagogo italiarraren leloa geure eginez, arestiko lau ardatzen inguruan dauden hainbat errealitate ikusezin ikusgarri egiteko saiakera ere bada ikerlan hau. Izan ere, hezkuntza aztergai nagusia duen HEZIKER diziplinararteko taldeak plazaratu duen lehen liburu honetan, 0-3 urte bitarteko Haur Hezkuntzako ikasleentzako Kubik antzezlanaren ikergai hartu da.

Egileak:	Hainbat egile
ISBN:	978-84-9082-044-5
Formatua:	15 x 21
Urtea:	2015
Or.:	154
Prezioa:	10,00 €

Gorputz adierazpena lehen hezkuntzan



Gorputz-adierazpena da gorputz-heziketako irakasleen artean pasio gehien sortzen duen eduki multzoa: batetik, beldurra, konfiantza eza, ikara, ezinikusia sortzen ditu eta, bestetik, poza, algarra, lilura, miresgarritasuna. Irakasleak eduki multzo horrekiko duen iritziaren arabera modu batean edo bestean iritsiko da ikasleengana eta, hala, eduki horiek ekiditeko edo lantzeko gogoia sortuko da.

Egilea:	Mª Teresa Vizcarra Morales (koord.)
ISBN:	978-84-9860-971-4
Formatua:	17 x 24
Urtea:	2014
Or.:	212
Prezioa:	15,00 €

Kirol-entrenamenduaren oinarriak eta kontzeptuak



Kirol-errendimendu maximoa lortzea da kirolari guztien xedea, zeinahi mailatan dihardutela ere. Helburu hori lortzeko, lan-prozesu zorrotz bat bete behar dute; prozesu horri, hain zuzen ere, prestakuntza edo entrenamendu deitu ohi diogu. Eredu militarra gurera ekarriz, «kirol-estrategia» egoki bat prestatu beharra dago, kirol-errendimendu maximoa lortzeko —estrategiatzat hartuz unean-unean erabaki egokiena hartuko dela bermatzen duten arauen multzoa—.

Egileak: Juan Manuel García Manso, Manuel Navarro Valdivielso, José Antonio Ruiz Caballero

ISBN: 978-84-9860-712-3

Formatua: 17 x 24

Urtea: 2012

Or.: 542

Prezioa: **32,00 €**

10 gako. Argudiatzeko eta frogak erabiltzeko gaitasunak



María Pilar Jiménez Aleixandre, gaur egun, zientzien didaktikako katedratikoa da Santiagoko Unibertsitatean, hamabi urtean Bigarren Hezkuntzako irakasle izan ondoren. Bigarren Hezkuntzan hautespen naturala nola ikasten den eta ingurumen-hezkuntza nola integratzen den aztertu du; eta hamar urte honetan, berriz, ikertu du nola argudiatzen den zientzietako eskoletan eta nola erabiltzen diren frogak.

Egilea: M^a Pilar Jiménez Aleixandre

ISBN: 978-84-9860-736-9

Formatua: 17 x 24 cm

Urtea: 2012

Or.: 206

Prezioa: **19,00 €**

Aucouturier metodoa. Ekintza-fantasmak eta praktika psikomotorra



Ekintza-fantasmaren kontzeptuaren bitartez, Bernard Aucouturierrek haurraren motrizitatearen psikodinamika ulertzera gonbidatzen gaitu, zeina larrimin saihestezinen aurrean haurrari segurtasuna ematen dioten ekintza sinbolikoen jatorrian baitago. Autoreak jarduteko eta jostatzeko atsegina nabarmentzen du, norberaren irudikapena eraikitzeko eta pentsamendua garatzeko ezinbesteko faktore gisa.

Egilea: Bernard Aucouturier

ISBN: 978-84-9860-557-0


Formatua: 17 x 24

Urtea: 2011

Or.: 304

Prezioa: **22,00 €**

Oroimena



Jendeak jakin-mina du oroimenaren inguruan eta oroimenaren hutsegite ikusgarrien inguruan; adibidez, amnesia duten pertsonen kasuan. Baina oroimenari buruz ikasten ari diren ikasleek, batzuetan, ez dute lortzen jakin-min horrek irautea. Arrazoa argia da: oroimena aztertzeko, kontu handiz diseinatutako esperimentuak gauzatu behar ditugu.

Egileak: Alan Baddeley, Michael W. Eysenck, Michael C. Anderson

ISBN: 978-84-9860-968-4

Formatua: 20 x 24

Urtea: 2014

Or.: 462

Prezioa: **30,00 €**

SOZIOLOGIA

Etnografia feministak Euskal Herrian. XXI. mendera begira dagoen antropologia



Liburu honek azken urteetan, gure testuinguruan garatu diren edo garatzen ari diren ikerketa antropologiko feministen berri ematen du. Sarrerako kapituluak jasota gelditzen denez, asko dira laurogeiko hamarkadatik hona emakumeen errealitatea aztertu edota genero-ikuspegia erabili duten euskal antropologoak, ekarpen interesgarriak eginez.

Egileak: Mari Luz Esteban Galarza, Jone Miren Hernández García

ISBN: 978-84-9082-460-3


Formatua: 15 x 21

Urtea: 2016

Or.: 284

Prezioa: **22,00 €**

Energia trantsizioak: iraunkortasuna eta demokrazia energetikoa



Lan honen eta trantsizio sozioekologiko eta energetikoei buruzko beste hainbat lanen sorburuan erregai fosilen eta hondakin-hustulekuen agortzea eta sistema sozioekonomikoaren beraren ahitzea daude nagusiki. Gizartea ere akituta dago, hainbat arrazoigatik itota: langileen esplotazioa, zaintza-lanak ikusezin izatea, egiturazko doikuntzak eta hazkunde ekonomikoaren gorazarrea.

Egileak: Leire Urkidi, Rosa Lago, Izaro Basurko, Martin Mantxo, Iñaki Bárcena, Ortzai Akizu

ISBN: 978-84-9082-311-8


Formatua: 15 x 21

Urtea: 2016

Or.: 234

Prezioa: **12,00 €**

Antropologiako hiztegia



Hizkuntzak elkarlanean garatzen dira. Gure kasuan, unibertsitateko gaiak euskaraz jorrazteko, ezinbestekoa da dagokion alorreko adituen eta hizkuntzalarien arteko lankidetzak. Horretan ari dira hala UPV/EHUko Euskara Zerbitzua eta jakintza-alorrak, besteak beste. Hala, **Antropologiako Hiztegi** hau Antropologia Fakultatearen eta Euskara Zerbitzuaren arteko lanaren emaitza da.

Egileak: Joxe Migel Apaolaza Beraza, Jone Miren Hernández García, Pio Pérez Aldasoro
 ISBN: 978-84-9082-041-4
 Formatua: 17 x 24
 Urtea: 2014
 Or.: 410
 Prezioa: **18,00 €**

Zer da kasuzko gizarte-langintza? Sarrera gisako deskribapen bat



Mary Ellen Richmond-ek gizarte-langintzaren oinarri zientifikoak ezarri zituen, bai lanbidearenak bai jakintza-arloarenak. Izan ere, gizarte-langintzaren eremuan, jardun profesionalerako eta prestakuntza akademikorako lehen proposamen teoriko-metodologikoak egin zituen. Mary Richmonden obra aztertu duten egileak bat datoz beraren ekarpenak gaurkotatzen direla baieztatzen.

Egilea: Mary Ellen Richmond
 ISBN: 978-84-9860-679-9
 Formatua: 17 x 24
 Urtea: 2013
 Or.: 170
 Prezioa: **14,00 €**


Erakundeen soziologia



Gaur egungo gizartea —konplexua, oso ekoizkorra eta ezegonkorra— erakunde-gizartea da: gure oinarrizko behar asko asetzeko (ura, garraioa, elikadura, energia, osasuna, irakaskuntza, aisialdia, bizitzaren zentzua, eta abar), nahitaezkoak dira erakunde horien jarduerak. Horregatik, beharrezko bihurtu da haiek aztertzea, geure bizitza egoki ulertzeko ezinbesteko osagaitzat.

Egileak: Antonio Lucas Martín, Pablo García Ruiz
 ISBN: 978-84-9860-865-6
 Formatua: 17 x 24
 Urtea: 2013
 Or.: 456
 Prezioa: **35,00 €**


Eusebio Osa. Belaunaldi baten lekukoa



Eusebio Osaren pentsamendua jarraitu liteke liburu honetan. Borroka sozial-kulturetan murgildu zen buru-belarri: ikastolan, alfabetatze-eskoletan, grebetan, NATOn sartzearen aurkako koordinadoran... Eta pentsamendua eta praxia, biak elikatu zituen. Marxista izan zen. Demokrazia eta sozialismoa gauza bera ziren Osarentzat —Kuba eredu on, eta Frantzia txar—, eta indarrean frankismo faxistatik demokrazia burges kapitalista autoritarioranzko trantsizioa zegoen.

Egilea: Pako Sudupe Elortza
 ISBN: 978-84-9860-879-3
 Formatua: 17 x 24
 Urtea: 2013
 Or.: 258
 Prezioa: **16,00 €**


Gizarte-kognizioa



Gizarte-kognizioa artikulu-bilduma bat da, zeinean aztertzen baitira, batetik, gizakiok gure ingurumen sozialari buruz ditugun irudikapen mentalak, eta, bestetik, nola prozesatzen, gordetzen eta berreskuratzen den informazio soziala. Aukeratutako artikuluek gizarte-kognizioaren inguruko ikerketa eta teoria jasotzen duten sorta erakusgarria osatzen dute.

Egileak: Marilyn B. Brewer, Miles Hewstone
 ISBN: 978-84-9860-596-9
 Formatua: 17 x 24
 Urtea: 2012
 Or.: 498
 Prezioa: **18,00 €**

Etnologiaren nozio giltzarriak. Azterketak eta testuak



Liburu hau ezinbesteko erreferentzia bihurtu da urte gutxian jakintza-arlo honetarako sarbide gisa. Etnologia ezagutzen hasi nahi dutenei zuzenduta dago, eta bereziki gizarte-zientzietako ikasleei. Jakintza-arlo honen metodoak eta funtsezko kontzeptuak aztertzen dira liburuan, bai eta paradigma nagusiak (eboluzionismotik estrukturalismora) eta ikerkuntza-eremuak ere (ahaidetasuna, ekonomia, politika, erlijioa...).

Egileak: Marie-Odile Géraud, Olivier Leservoisier, Richard Pottier
 ISBN: 978-84-9860-569-3
 Formatua: 17 x 24
 Urtea: 2011
 Or.: 366
 Prezioa: **24,00 €**

TIRABIRAK. *Tiras que aflojan*



Egileak: Hainbat egile

ISBN: 978-84-9082-474-0

Formatua: 26 x 16

Urtea: 2016

Or.: 324

Prezioa: **19 €**

1977tik 2016ra, egunik egun, hainbat egunkaritan argitaratutako binetez betea datorkigu liburu hau. Marrazkilarien eskutik, azken hamarkadetakoko euskal gatazka irudikatzeko askotariko ikuspegiak, konfrontazio politikoaren aurpegiarik bortitzena agerian jarriz, sortutako sufrimendua erakutsiz eta gogoeta kritikoa bultzatuz. Bineten bidez, gatazkaren oinarriak eta ondorio gordinenak azaleratzen dira eta, aldi berean, ironiak, satirak eta parodiak gertakarietara hurbiltzeko beste ate batzuk ireki. Bakea, errespetua eta elkarbizitza erakitzeko gogoeta, begirada enpatikoa eta integraztailea lantzeko tresna egokiak izan daitezkeelako tira grafikoak.

Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuak, EITBk eta UPV/EHUko EMAN ikerketa taldeak garatutako "TIRABIRAK / Tiras que aflojan" transmedia proiektu zabalaren baitan kokatzen da argitalpena.

Kalitatezko kazetaritza: Ba al dago etorkizunik?

Erreferentziazko prentsaren eboluzioa Euskal Herrian eta Europan (2001-2014)



Liburu honen funtsa oso labur azaltzen da: kazetaritzaren oraina eta geroa. GHG Ikertaldea, akademia eta lanbideko beste hainbat aditu eta profesional bezala, kezkatuta dago lanbidearen barruan gertatzen ari diren aldaketen ondorioez. Mudantza hauek eraginik izan al dute informazioaren kalitatean? Ebaluatu al daiteke informazioaren kalitatea? Nolatan, zein irizpidetan? Eta euskal hedabideak, nola daude? Europako onenen mailan?

Egileak: Txema Ramirez de la Piscina, Alazne Aiestaran, Antxoka Agirre, Beatriz Zabaldondo

ISBN: 978-84-9082-217-3

Formatua: 17 x 24

Urtea: 2015

Or.: 310

Prezioa: **28,00 €**

Gure (zinemaren) Sor Lekua. Euskarazko lehen filmaren aurkikuntza, historia eta analisia



André Madré jeneralak zuzendu eta 1956an Hazparden estreinatutako **Gure Sor Lekua** euskarazko dokumental luzea du ardatz saio honek. Orain arte galdutzat ematen zen filma, historian euskaraz egindako lehena litzatekeena. Prozesu luze baten baitan egileak deskubritutako kopia mutu baten eta beste hainbat material baliosen aurkikuntza du abiapuntu ikerketak, pelikularen, Madré-ren eta garaiaren azterketa burutzen da bertan.

Egilea: Josu Martínez
Martínez

ISBN: 978-84-9082-153-4

Formatua: 13,5 x 21,5


Urtea: 2015

Or.: 244

Prezioa: **13,00 €**

Komunikazio Saila, 24

Lurraldeak eta mugaldeak II. Agerraldiak eta presak Espainiako zinema dokumentalean



Argitalpen honek segida ematen dio aurreko liburuak **-Lurraldeak eta Mugaldeak. Esperientzia dokumental garaiak (2013)**-hasitako bideari, Euskal Herriko Unibertsitateak eta BilbaoArte Fundazioak antolatutako zuzendari, akademiari eta zine-kritikarien arteko topaketen lekukotza jasoz.

Egilea: Vanesa Fernández
Guerra (arg.)

ISBN: 978-84-9082-219-7

Formatua: 16 x 22,5

Urtea: 2015

Or.: 194

Prezioa: **15,00 €**

Informazioaren komunikazioa eta datu eta bilduma digitaletarako sarbidea



Dokumentazioa, kazetaritza eta teknologia batzen dira liburu honetan, hamalau adituren eskutik. Gai hauek aurkituko ditugu bertan: biltegiak, liburutegi digitalak, dokumentazioaren irakaspena, dokumentazioa bertsolaritzan, webguneen optimizazioa, datu kazetaritza, kazetaritza digitala, elkarrizketen prestakuntza, erakundeetako komunikazioaren egokitasuna eta gaurkotasunezko informazioa rock musikan.

Egilea: Teresa
Agirreazaldeggi
Berriozabal (koord.)

ISBN: 978-84-9860-932-5


Formatua: 17 x 24

Urtea: 2014

Or.: 236

Prezioa: **12,00 €**

Lurraldeak eta mugaldeak. Esperientzia dokumental garaikideak



Argitalpen hau hainbat zuzendari, akademiko eta zine-kritikariren arteko zenbait topaketatatik sortu da; topaketok Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU/UPV) 2010ean eta 2011n antolatutako unibertsitate-hedapeneko bi ikastarotan izan ziren. Baina sortu da, halaber, ondorengo kafe, mail, elkarrizketa interesgarri eta konpainia onetatik ere.

Egileak: Vanesa Fernández,
Miren Gabantxo
(arg.)

ISBN: 978-84-9860-887-8

Formatua: 16 x 22,5

Urtea: 2013

Or.: 166

Prezioa: **15,00 €**

Euskal Herriko kazetari digitalen lanbide-jarrerak eta lan-egoera



Euskal Herriko komunikabideak hamabi bat urtetan daude Interneten. Horri buruzko ikerketa ere garatu da Euskal Herriko Unibertsitatean azken hamarkadan. Hainbat alderdi aztertu dira, baina lanbide bera ere eta haren inguruko jarrerak eta lan egoera ikertzeke dago oraindik. Hala ere, beste autonomi erkidego batzuetan halako ikerketak burutu dira, batez ere, Galizian eta Katalunian.

